

Hiru bidaiariak, Katilua eta Behruz **hiru liburu narratiboak**

Neurria

Liburu ttipi, handi, italiar formatuan (horizontala) edo formatu bertikalean, zutik edo etzanik, izariaren hautuak badu zer ikustekorik ipuinarekin : *Hiru bidaiariak* albumean irudi panoramikoak edo basamortuaren lasaitasuna erakusteko izari horizontala hautatua izan da, aldiz *Katilua* liburuan itxura bertikalak oroitarazten ditu Japoniako marrazki luzeak (*ikebanak* bereziki).

Azala

Irakurketaren hipotesiak sorrarazten ditu ; irakurbide berriak irekitzen ditu.

Titulua

Elementu nagusi bat aipatzen du (katilua), pertsonaia nagusia (Behruz izeneko mutikoa) edo pertsonaia nagusiak (hiru bidaiariak).

Liburua ireki aitzin, hipotesiak egin daitezke :

- *Zure ustez zertaz mintzatuko da ?*

Azaleko hitzak gorde daitezke titulu baten aurkitzeko eta autoreak hautatu duenarekin konparatzeko. Aldi honetan ilustrazioak du gogoeta argituko.

Alderantziz, marrazkia gorde daiteke, tituluan finkatu gogoeten adierazteko.

- *Zer titulu eman zenezake ?*
- *Titulu horrekin, nola irudika zenezake ?*

Marrazkia

Hiru liburuek ber marrazkilaria daukate : badea zer ikustekorik hiruren artean ?

- *Zer teknika erabilia da ? (collage, tinta, marrazki, tindu...)*

Liburuan sartzeko :

- **Marrazkien bidez**

Teknika kontuan hartzen da, moldaketa orrialdean, kuadroak eta ikuspuntua, koloreak, marrazkien irudimena...

Marrazkiei baizik ez begiratzuz, zer da zure ustez gertatzen dena ?

- **Testuaren bidez**

Hiru liburu horiek hirugarren zikloko ikasleei zuzenduak zaizkie, edo berdin kolegioko lehen urtekoei.

Testu franko laburrak dira (*Hiru bidaiariak* : 500 hitz, *Behruz* : 1000 hitz, *Katilua* : 1500 hitz) baina hiztegi aberatsez josiak (bereziki *Katilua*). Ikasleak irakur dezake bakarrik edo ikasgelan, irakaslearen eta taldearen laguntzarekin.

Horiek oro abiapuntuak izaten ahal dira idazkera lan baten eremateko.

Testuen eta irudien arteko lotura

Irudiak itxuratzen ahal du (dutea zerbitzatzeko manera basamortuan, haize-parpailaren forma Japonian, Teheraneko merkatuko karrikañoak edo saltegi mukuru beteak, beste mezu bat erakusten ahal du (jendearen kezka Sahara basamortuan, Japoniako anderearen begirada misteriotsua).

- *Ipuina ulertzen ahal ote da testua baizik ez erabiliz ?*
- *Marrazkiak laguntzen ote du irakurlea ? Ipuina ulertzen ahal ote da marrazkiei baizik ez so eginez ?*
- *Nolako kondaira da ? linearra ?*
- *Nolako marrazkiak dira ? Plano orokorrak, aitzin planoak, lehen planoak ?*

Narrazioa

- *Nor da narratzailea ?*
- *Nola bukatzen da istorioa ? Hastapeneko egoeratik bukaerako orekara.*

Pertsonaiak

Behruz izeneko albumean identifikatzen ahal da pertsonaiarekin (8-10 urteko haur bat), aldiz beste bietan jende helduak dira, Euskal Herritik urrun eta denboraz ere aski urrun oraingo mundutik. Hiru liburuetan, urruntzea nabari da, narrazioak eramaten gaitu munduaren beste eskualde batera.

Bukaera

Lasaitasuna berreskuratzen da ipuina bukatzean.

Erreferentzia kulturalak

Hiru ipuin, hiru mundu desberdin, hirurak Europatik kanpo. Ikuspegi hau erakutsia da gaiaren hautuan, hiztegi berezi batek lagundurik.

Ustiapen pedagogikoak

Irakurketa, hizkuntzaren azterketa, ikerketa dokumentalak, arte plastikoa... (ikus eranskinak).

Hiru bidaiariak

 Ihardespen egokia erakuts ezazu, gurutze bat eman ez laukitxoan.

Gizon-emazteak kezkatuak dira. Zergatik ?

- Ez dituzte hiru gizonak ezagutzen.
- Ez dute aski jatekorik.
- Galduak dira, Sahara basamortuan.

Basamortuan, zer eskaintzen zaio urrundik jiten den jendeari ?

- ur freskoa.
- dute beroa.
- kafe azkar bat.

Zer jaten dute elkarrekin ?

- ogi opila.
- bildoskia.
- arto salda.

 Erantzun ezazu.

“Zure ipuinek loriatu gaituzte...” zioten hiru bidaiariek.

Zer eskaintzen du lehenak ?

Zer eskaintzen du bigarrenak ?

Zer eskaintzen du hirugarrenak ?

Familiari ez zaio sekula dutea eskatu eta egurra xuhurtu baldin bazaio ere, oihal-etxola beti zabalik dauka...

Zure ustez, nahiz eta pobre izan, zergatik bisitariak ongi errezebitzen dituzte ?

.....
.....

Dena makila, dena zango...
 Dena marra, dena gurutze...
 Dena tita, dena puntu...



Sahara basamortuko Tuaregek
 alfabeto berezi bat erabiltzen dute,
tifinagh deitzen dena (*tifinar* ahozkatzen da).

Ea haien idazkera irakurriko duzun...



oOoΛξoOoI
 oOoΘoOo, ξRoo
 oOoRooH ΛoΛoXoXoξo
 oOoΘoξo+oOoR
 XoΛo+oOo+ ΛoRoo
 oOoRooOoOoI o+o

a	o	g	X	m	□	s	⊙	y	Ʒ
b	Θ	h	⊙	n		t	+	z	⋈
c	⊙	i	ξ	o	h	u	o		
d	Λ	j	I	p	λ	v	⊥		
e	o	k	R	q	⊥	w	□		
f	H	l	H	r	O	x	X		

Kodeari begiratu, aurki itzazu gorde diren hitzak :

h	λ	ξ	H	o					

⊙	ξ	O	o						

Θ	ξ	Λ	o	X	o	O	o	+	⋈	o

o	H	o	O	ξ					

X	o	□	o	H	o				

⊙	ξ	O	o						

X	ξ	⋈	h		o	R			

I	h	o							

⋈	ξ	O	o						

Erantzunak :

opila ; hiru ; bidegurutze ; afari ; gamelu ; Hiru gizonak joan ziren.

Tuaregen idazkera : tfinaga

Mohamed Aghali-Zakararen laguntzaz



Lehengo harri gaineko idazkia, Libian

Bi mila eta bostehuneko istorio luzearekin, munduko idazkera zaharrenetarik da. Aldaketa luze batzuen ondotik, Ipar Afrikako idazkera libikoa da.

Orain arte, hamar bat alfabeto desberdin kontatu dira. Aljeria, Libia, Niger eta Maliko alfabetoetan, hogeitahogei sei hizkiren artean, hamaika berdinak dira, itxuraz eta balioaz. Desberdintasun horrek adierazten ditu Tuaregen euskalki desberdinak. Idazkera alibikoak bezala, egitura geometrikoa da baina tfinag hizkiek puntuak badituzte, bakarrik edo marrekin lotuak. Hizkiak ez dira elkarri lotuak eta kontsonanteak dira nagusi, /w/ eta /y/ salbu. Bestalde ./ punctuak erakusten du hitz baten bukaera edo erranaldi zati batena, testu luzeak nekez zatitzen direlarik. Ahozko eta idatzizko hizkuntzen artean, urrats handi bat badago. Usaian bertikalki idazten da, beheetik goiti baina horizontala izan daiteke, ezkerretik eskuinera edo eskuinetik ezkerrera, batzuetan kurubilkatua ere.

Azken hamarkada hauetan, azkarki aldatu da idazkera, bertze mintzaira batzuekin harremanetan gertatuz, adibidez arabiarrekin eta latin hizkuntzekin. Eman diote hitzen zatitzeko usaia, xuriak utziz edo makoak erabiliz. Puntua gutitan erabiltzen da, beste funtzio bat baitu, hitzaren bukaerako bokal bat izanki.

Bokalak gehitzen dira orain. Tuareg arabazaleek bokal labur arabiarak erabiltzen dituzte, eskuinetik ezkerrerako norabidea atxikiz eta irakurmena erraztuz.

Charles de Foucauld aitak (1858-1916) Tuaregen artean finkatu zen 1904an eta hil arte, lan anitz eraman zituen haien mintzairaren ezagutzeko eta ezagutarazteko.





Gaur egun, Aljeriako Kabilia eskualdean, hiru hizkuntzako (arabiera, tfinaga, frantsesa) bideseinale batean.

Olerki karratua

Jean Lescure (1912-2005) olerkari engaiatua da (Erresistenzia denboran bereziki), *Messages* aldizkariaren sortzaileetarik izan da eta ondotik, *Ouliporena*. Bere olerki karratuetan lau hitz erabiltzen ditu, elkarren artean nahasten dituen.

« Rien n'est plus facile que d'interchanger les beaux adjectifs. Rien n'est plus beau que d'interchanger les faciles adjectifs. Avec les substantifs déjà la difficulté se fait plus étrange. Avec la difficulté déjà le substantif se fait plus étrange. »

	 <p>Feuille de rose porte d'ombre Ombre de feuille porte rose Feuille, porte l'ombre d'une rose Feuille rose à l'ombre d'une porte Toute rose ombre une porte de feuille.</p>
<p>Iturria : Jean Lescure, "Poèmes carrés", <i>Drailles</i> liburutik, Gallimard argitaletxea, 1968)</p>	

Sahara basamortuan, Tuaregek diote hiru dute edatearekin, lehena samina dela, bigarrena bortitza baina azkenak azukre gustu goxoa duela.

Jean Lescure olerkari frantsesaren teknika erabiliz, erran zaharra hiru maneratan irakurtzen da testuan :

Heriotza bezain samina,
bizia bezain bortitza,
amodioa bezain goxoa.

Amodioa bezain samina,
heriotza bezain bortitza,
bizia bezain goxoa.

Bizia bezain samina,
amodioa bezain azkarra,
heriotza bezain arina.

Hiru bidaiariak

collageak, paper urratuak.

Helburuak :

- Obra plastikoak asmatu eta gauzatu helburu artistiko edo espresibo batekin, teknika berezi bat erabiliz.
- *Collage* obra bat eraiki paper urratuak erabiliz.
- Sorkuntza artistikoaren arlo nagusiak bereizi (zinema, marrazki, margo, eskultura, dantza...).
- *Collageak* erabiltzen dituzten obra nagusi batzuk ezagutu.

Azalpena :

Collage obra bat egiterakoan, hiru urrats badira :

- paper eta kolorearen bilketa
- forma baten hautatzea eta urratzea
- obraren eraikitzea elementu desberdinak erkatuz.

Dituen paper puska guzien artean, ikasleak beharko du xerkatu, urratu eta elkartu.

Ekai arrunta baizik ez da behar : iragarkiak, kolorezko paperak, bigarren eskuko aldizkariak. Pikatzen ahal da (aizurrekin) edo erhiekin urratu (hainbat hobe, irregulartasunek bizia ematen ahal badiote obrari).

Marrazkia aitzinetik pentsatzen da : arkatzez egin daiteke aitzinetik edo zuzenki kolatu aitzin-marrazkirik egin gabe.

Itxura sinpleak hautatuko dira denbora hastapen batean : itsasoaren uhinak, mendiak eta zelaiak, lerroak edo kurbak.

Lanaren errazteko, euskarria da kolaz estaliko eta paperak gainetik pausatuko dira.

Lantzen ahal diren obra batzuk gaien sartzeko, irudimenaren elikatzeko :

Kubismoa aipatzen ahal da **Picasso** (*Tête d'homme*, 1913, paper kolatua), **Braque** (*Verre, carafe et journaux*, 1914), **Juan Gris** (*Le livre*, 1913) ;

ondotik XX. Mendeko obrak : **Matisse** (*La tristesse du roi*, 1952, Nu bleu, 1952), **Chaussac** (*Personnage debout*, 1961-62) ;

eta berrikiago, karrikako afixak baliatzen dituztenak : **Hains, Villegelé...**

Teknika hau erabiltzen duten liburu bat edo beste :

A quai, Sara Seuil Jeunesse 2005 (silhouettes déchirées, papier Canson)
Le petit cochon têtue, Jean-Louis Le Crever Martine Bourre, Didier jeunesse, 2006
Thami une journée bien remplie, Coby Hol, Hatier, 2007

Hiru bidaiariak

Helburuak :

Euskarazko testu batzuk ulertu, irakurtu, haienganako interes, balorapen eta gozatze jarrerak erakutsiz.

Beren baitan bereziki erreferentzia kulturalak dituzten idazlanak aurkitu.

Gai bati buruzko lexiko aberastu, irizpide desberdinen arabera hitzak sailkatu, hitz baten testuinguru posibleak aztertu, hitz ezezagunen interpretazioa testuinguruaren arabera.

Irakurketa-Idazketa: liburutegia edo irakurketa-xokoaren baliatzeko ohitura eraiki.

Aipatzen den herriaren zenbait alderdi soziokultural identifikatu eta ezagutu.

Beste testuekin loturak edo desberdintasunak adierazi.

Iturria : Euskarazko kompetentziak B.O. Hors série n°9 du 27 septembre 2007

Hiru bidaiariak albuma irakurtzean, parekatzen ahal da bi testu ezagunekin, bata Bibliatik jalgia, bestea ahozko literaturatik, *Mila gau eta bat gehiago* ipuin bildumatik.

Jauna Abrahami agertu zitzaion Mamreren haritzetan. Abraham oihal-etxolaren sargian jarririk zen, egunaren beroenean. Begiak altxaturik, hiru gizon ikusi zituen bere aitzinean xutik. Ikusi orduko, lasterka joan zitzaioten oihal-etxolaren sargiatik.

Ahuspez jarri eta erran zioten :

–*Jauna, begiko banauzu, ez urrunt, otoi. Berehala ekarriko dauzuet ura, oinen garbitzeko. Hartazue atsedean, zuhaitzaren itzalpean. Jateko zerbait ekarriko dauzuet indarberri zaitezten. Gero joanen zirezte. Zerbaitengatik iragan zirezte zihaturen zerbitzari hunen ondotik.*

–*Ongi da –ihardetsi zioten–; egizu erran bezala.*

Abraham prisaka sartu zen oihal-etxolan, Sararenganat, eta erran zion :

–*Laster, egizu oreira irinik hoberenaz hirurentzat eta presta opil batzu.*

Abraham bera bizi-bizia joan zen behietarat eta, araxe guri eta gizen bat hautaturik, mutil bati eman zion ; hunek berehala prestatu zuen. Hartu zituen mamia, esnea eta prestatu haragia, eta bisitarieri ereman ziozkaten. Jaten ari zirela, xutik egon zen bera ondoan, zuhaizpean. Erran zioten :

–*Nun da Sara zure emaztea?*

–*Oihal-etxolan –ihardetsi zuen Abrahamek.*

[...]

Gizonak jeiki ziren handik, eta Sodomarat abiatu. Abrahamek lagundu zituen, bidean ezartzeko.

(Hasiara liburutik, 18. kapituluan)

Iturria : Biblia lapurtarrez, Belokeko fraidetxea, Ahurti, Marcel Etchandyren itzulpena www.amarauna.org/biblia

Galdea : Zein dira bi istorietan agertzen diren elementu berdinak ?

Shahrazad (arabieraz شہزاد Shahrazād, pertsiar jatorriko izena) *Mila kondaira* ipuin arabiarreko liburuko narratzailea da. *Mila gau eta bat gehiago* izenez ezagutzen dugun ipuin bilduma Ekialdeko ahozko tradizioaren altxorretik heldu zaigu. Nehork ez daki noiz sortu ziren. Handik aitzina bertsio franko izan zuen liburuak, horietatik ezagunena Antoine Gallandek frantsesez idatzia, duela hiru mende pasa.

Mila gau eta bat gehiago (Patxi Zubizarretak euskaratua)

Xariar sultanak aspaldian ez zuen bere anaia Xazaman ikusi. Hala bada, bere bisir Dandan deitu, eta Samarkandara joan zedila agindu zion, eta ekar zezala Xazaman berarekin batera. Bisirra joan eta, badator atzera Xazamanekin batera, baina, bidean aurrera, jauregira itzuli da hura, anaiarentzat ahantzia zuen opari baten bila. Eta, jauregira ezustean itzulirik, han zer topatuko, eta emaztea mirabe batekin oheratua topatu zuen. Amorrazio beltzak harturik, biak ala biak ere garbitu eta, bihotza erdiraturik, Xariarregana abiatu zen.

Xariarrek zurbil eta goibel ikusi zuen anaia, baina honek ez zion bere zorigaitzaren berri eman nahi izan. Xazaman mingulina doi bat adoretzearren eta bizkortzearren, ehizaldi batera gonbidatu zuen, baina Xazamanek, bere tristeziarekin, bakarrean geratzea nahiago.

Xariar ehizaldian zebilela, Xazaman lorategietara irten zen ilunabar batean. Eta, han zer ikusiko, eta Xariarren emaztea mirabe batekin ikusi zuen, eta hogeitasek hobe morroirekin, denak ere lizunkeriarra emanak. «Gaitzerdi», egin zuen bere baitan, «anaiarena nirea baino okerragoa da».

Ehizaldia amaitu zuelarik, Xariarrek ezin izan zuen anaiaren esana sinetsi. Alabaina, zalantzak joa, badaezpada ere gezurretako beste ehizaldi bat prestatu zuen, eta gauez mozturirik itzuli da jauregira. Eta Xazamanek kontatutakoa egia zela ikusirik, bihotz ilunak egin zitzaizkion. Orduan bi anaiak elkar hartu, eta munduan barrena abiatu ziren, noraezean.

Zenbait hilabeteren buruan, anaiak itsaso gaziaren bazterrean zeudela, ezustean, ur azalean kezko halako zutabe bat begiztatu zuten. Zutabetik animaleko jeinu bat agertu zen, buru gainean kutxa bat zekarrela. Anaiak tximistaren pare zuhaitz batera igo, eta jeinua kutxa zabaltzen eta handik emakume lirain bat ateratzen ikusi zuten. Jeinuak bere loaldia zaintzeko agindu zion emakumeari eta, hark ere, bi anaiei erreparatu zielarik, zuhaitzetik jaisteko agindu zien. «Jeinua esnatzea nahi ez baduzue, zeharka nazazue zuen lantzez», esan zien gero. Xariar eta Xazaman ez zerurako ez lurrerako geratu ziren, baina, jeinuaren beldur izaki, anderea asebetetzea erabaki zuten. Zeharkatu zuten, beraz, eta, amaitutakoan, emakumeak eraztun bana eskatu zien, eta bi eraztunak ordurako beste 570 zituen lepokoari erantsi zizkion. «Ene eztei gauean bahitu ninduenetik, 572 bider mendekatu dut jeinu txerrenkume hau», aitortu zuen. Eta, bi anaiak handik urrundu zirelarik, elkarri esan zioten: «Gaitzerdi, jeinu ahaltsuak berak gu baino okerrago daude». Eta beren buruekin bakezkoak eginik, nor bere jauregira itzuli zen.

Alabaina, Xariarren barrena ezin oso lasai egon, zeren, jauregira itzulitakoan, emaztea eta mirabe lizunkoiei lepoa mozteko agindu baitzuen ; zeren, harrezkero,

gauero-gauero bere bisir Dandani neskati urratugabe bat logelara eramateko agindu baitzion. Eta neskatilari gauean birjintasuna lapurtzen ziolarik, egunsentiarekin hilarazi egiten zuen.

Egunetik egunera erresuma suminduago eta izutuago zegoen, izan ere gero eta neskatxa gutxiago geratzen baitzen erregearen plazererako. Harik eta bisirren bi alabak baino geratu ez ziren arte. Zaharrenak, Xerazadek alegia, liburu asko irakurriak eta ipuin asko entzunak zituen, eta tinkotasunez mintzatu zitzaion aitari : «Jainkoarren! Eraman nazazu sultanarengana eta emakume musulmanen salbatzailea izango naiz». Hala bada, Xerazadek gau hura Xariarrekin igaro zuen, baina egunsentian inor ez zitzaion lepoa moztera inguratu : ez egunsenti hartan, ez hurrengoan eta ezta hurrengo mila eta batean ere. Antza, Xerazadek gauero ipuin baten zatia kontatzen zion erregeari, eta hark, jakingosez beterik, hurrengo gaua arte itxaron behar izaten zuen ipuinaren segida desiratua ezagutu ahal izateko.

Iturria : *Mila gau eta bat gehiago*, Patxi Zubizarretaren bertsioa Erein argitaletxean

Galdea : *Mila gau eta bat gehiago* ipuin bildumetan, Xerezada gauero ipuin baten zatia kontatzen dio erregeari (sultanari). *Hiru bidaiariak* albumarekin, ba ote du zerbait ikustekorik ? Zein dira bi istorioetan agertzen diren elementu berdinak ?

Katilua

Katilua albumean, eltzegile batek katilu bat erretzen du laster, labetik ateratzen du eta sutan jartzen zaio.

Raku (㇀㇀, *raku-yaki*) eltzen esmailatzeko teknika berezi bat da, Korean sortu zena eta Japonian zabaldu, XVI. mendean. Dute zeremoniari lotua da. Erabiltzen da buztin nahasketa bat tenperatura gorari gogor egiteko. Ontzi beroak ateratzen dira labetik, urean edo kanpoko airean hotzarazten dira eta, kasu guzietan, belzten dira lurra, sua eta ura batzen direlarik. Dutearen zeremonia, « xa-no-iu », *Zen* filosofiari lotua zaio eta dute ontziak bere garrantzia dauka, beste tresna guziak bezala, forma iraunkor batean.

Dute zeremonian erabiltzen den katilua **Xauan** deitzen da eta Japonesez garrantzi handia ematen diote : badira dute-katilu bereziak urtaroaren, egoeraren edo egunaren arabera.



Dute ontzi horiek obra bat bezala kontsideratzen direlarik, bakoitzak badu bere itxura, kolore edo gai berezia. Raku ontzi guzien artean, ezagunenetakoa da « Fujisan raku » edo « Fuji mendi katilua », Hon'ami Koetsu (1558-1637) artista nagusiak egin zuena. Izena esmailaren beltz eta zurixka koloretik dator, sumendiaren hegaletan metatzen den elurra itxuratzen baitu.

Iturriak :

- *Le raku*, Art et pratique des cuissons rapides, Jacques Peiffer, Ed. Dessain et Tolra, 2004
- *Connaître et réaliser la céramique japonaise*, Tomimoto & Sanders, éd. Dessain et Tolra, 1976